



PRENTSARAKO OHARRA

18/07/20

Babestu Alkarteko ordezkariak Bizkaiko egoitzatan bizi dan egoeraren aurreko ardurea adierazo dabe batzordean

Babestu Alkarteko Enrique de la Peña eta Juana Céspedes Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordearen aurrera etorri dira gaur goizean, Bizkaiko egoitzek bizi daben egoeraren erradiografia orokorra egiteko, aurrean daukiezan erronkak azaltzeko eta alkarteak bultzatzen dituan konponbide proposamenak aurkezteko. Enrique de la Peñak azaldu dauen moduan, “egoitzatan dagozan personeren senideen” Bizkaiko alkartea eta “herritarrek osatutako plataforma independentea” da, eta euren “azkenengo helburua” “zahartzea bakean eta duintasunean bizitzea lortzea” da.

Berba egin dauen alkarteko kidearen eretxiz, zahartzea eta, hori dala eta, “zainketa gehiagoren beharra” erakusten dauen adierazleetako bat 85 urtetik gorako gero eta persona gehiago dagola da. Bere eretxiz, erakundeek egoera horren aurrean erakusten daben jarrera autokonplazentziazkoa da; “biztanleriaren benetako beharra zein dan ikusi beharko litzateke”, adierazo dau. Modu berean, alde batetik, plaza kopurua handitzeko dagon “benetako borondate” faltea eta, bestetik, “kontzertazioaren kontrol desegokia” kritikau ditu.

Azken gai horren inguruan, kontrolak zorrotz egin behar dirala erakusten daben arazo batzuk zehaztu ditu. Gaueko arreta “ez nahikoa”; higiene falta eta nutrizio desegoki arriskua dago; presinozko ultzera kasuak; eta Gernu Traktuko Infekzino maila altuak. Egoera hori ikusita, Babestuk, beste puntu batzuen artean, “maiztasunez kalidade erespideak neurtuko dituan” beste modu bateko neurketa sistema eskatu dau, eta baita diru publikoa ahalik eta modu egokienean erabiltea be, “egoiliar baxotxaren benetako kostua zein dan zehaztuz”. Modu berean, gizarte langilearen figura errebendikau dau.

“Ez gara inoren etsai. Lagundu gura dogu, baina behar handia ari gara egiten danontzat. Dagozanentzat eta egongo garenontzat”, bukatu dau Juana Céspedes Alkarteko presidentek.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak “kontu eta gogoeta handiz” aurrera egiteko eskaria egin dau; “mota guztietako proposamen positiboak egin daikeguz, baina 2030. urtean eusteko modukoak izango diran gauzak egin behar doguz”, adierazo dau. Javier Ruiz Talde Popularreko bozeroaleak, bere aldetik, “herritarrak zahartze demografikoaren inguruan sentsibilizau beharra” azpimarratu dau. Podemos Bizkaia taldeko Josean Elgezabal batzordekideak, “beste erakunde batzuk be ikutzen dituan” eztabaidea dala gogoratuau dau, eta alternatibetan gehiago sakontzea eskatu deutse etorri diranei.

Modu berean, David Lopategi EH Bilduko batzordekideak, azkenengo kontzertazioan plaza kontzertuaren prezioak gora egin ostean zerbitzuaren kalidadeak hobera egin dauela hauteman ete daben galdetu deutse alkarteko kideei. Horri jagokonez, Juana Céspedesek “igoereagaz ez dauela kalidade handiagoa” hauteman adierazo dau.

Bertara etorritako kideak egoitza batzuetako Norbanakoen Arreta Planaren (NAP-PAI) garapenaren ganean kritikaren bat egin ostean, Josu Montalbán sozialistak esan dau ez daukala hain argi “NAP-PAIren garrantziak behera egin dauenik”, eta ez beteterik ezagutu ezkerro, salatu egin behar dala adierazo dau. De la Peñak esan dauenez, “tresna baliagarria” dan arren, orain arte “ez da ezelango inbertsinorik egin hori ezagutuarazoteko”. Euzko Abertzaleak taldearen eskutik, Jon Sánchezek “azkenengo urteetan, azkenengo pleguak onetsi eta gero, Foru Aldunditik hobekuntzarako apustu garbia dagola” esan dau, eta “azterketa nasaia eta alkar errespetetako gaitasunagaz egindakoa” eskatzen dauen gai “sentsiblea” dala.

BASOEN EGOEREA BIZKAIAN

Horren aurretik, Julen Villasante eta Keko Salgado etorri dira taldeen aurrera, helburu nagusia Bizkaian baso autoktonoa berreskuratzea daukan “Kolore guztietako basoak” proiektua aurkezteko asmoz. Bozeroale biek azpimarratu dabenez, gaur egun baso autoktonoa lurraldeko zuhaitz azaleraren %25a baino ez da eta, ganera, oso bananduta dago eta gaztea da. Azalera horretan azpimarragarria da pinuaren eta, batez be, eukaliptoaren presentzia; Armintzan edo Lemoizen, adibidez, espezie horrek azaleraren %66 hartzen dau.

“Planteetan dodana etorkizun barria eta hobe da”, aurreratu dau Villasantek. Batez be titulartasun publikoko lurretara zuzenduta dagon neurriaren helburua bioaniztasuna aberastea da, baso autoktonoa gaur egun hartzen dauen %25etik %42ra pasau daiten. Azaldu dauen moduan, baso autoktonoen abantaila nagusietakoa suteakaz dago erlazonauta: “suarentzat askoz errazagoa da landaketa batetik hedatzea, baso autoktono batetik egitea baino, barruan hezetasun gehiago daukienez, ertzak baino ez diralako erretan”.

NOTA DE PRENSA

20/07/18

Representantes de la Asociación Babestu expresan en comisión su preocupación por la situación de las residencias de Bizkaia

Enrique de la Peña y Juana Céspedes, en representación de la Asociación Babestu, han comparecido esta mañana en la Comisión de Peticiones y Relaciones con la ciudadanía para realizar una radiografía general de la situación que atraviesan las residencias de Bizkaia, los desafíos que éstas plantean y las propuestas de solución que la asociación impulsa. Como ha explicado Enrique de la Peña, ésta se trata de una asociación “de familiares residentes” a nivel de Bizkaia y “una plataforma ciudadana independiente” con el “objetivo final” de “la consecución de un envejecimiento en paz y dignidad”.

Para el compareciente uno de los indicadores que evidencia el envejecimiento y, por lo tanto, “la necesidad de más cuidados”, es el aumento de personas mayores de 85 años. En su opinión la actitud institucional ante esta situación es de autocomplacencia; “habría que trabajar en ver cuál es la necesidad real de la población”, ha manifestado. De igual manera ha criticado, por un lado, una falta de voluntad “significativa” de aumentar el número de plazas públicas, y por otro lado, un “control insatisfactorio de la concertación”.

Respecto a esta última cuestión, el compareciente ha detallado algunos de los problemas que evidencia que habría que intensificar los controles. Una atención nocturna “insuficiente”; un riesgo de déficit de higiene y de malnutrición; casos de úlceras de presión; y percepción de altos niveles de Infecciones de Tracto Urinario. Ante esta situación Babestu ha solicitado, entre otras cosas un sistema de medición distinto “que mida periódicamente criterios de calidad”, y la optimización del dinero público “determinando cuál es el coste real del residente”. Asimismo han reivindicado la figura del trabajador social.

“No somos enemigos de nadie, queremos cooperar, pero estamos haciendo un trabajo inmenso para todos. Para los que están y para los que vamos”, ha concluido Juana Céspedes, presidenta de la asociación.

Arturo Aldecoa, portavoz del Grupo Mixto, ha instado a avanzar “con mucha cautela y reflexión”; “podemos hacer todo tipo de propuestas positivas pero debemos hacer cosas que sean mantenibles en 2030”, ha declarado. Por su parte, el portavoz del Grupo Popular, Javier Ruiz, ha incidido en la necesidad “sensibilizar a la ciudadanía respecto al envejecimiento demográfico”. Josean Elgezabal, apoderado de Podemos Bizkaia, ha recordado que este se trata de un debate que “toca a otras instituciones” y ha pedido que los comparecientes profundizaran en las alternativas.

De igual manera, el apoderado de EH Bildu, David Lopategi ha preguntado a la asociación si han notado una mejora en la calidad del servicio tras el aumento del precio de la plaza concertada en la última concertación. A este respecto Juana Céspedes ha manifestado no haber notado “más calidad con la subida”.

Ante una crítica por parte del compareciente del desarrollo del Plan de Atención Individualizado (PAI) en algunas residencias, el socialista Josu Montalbán ha asegurado no tener tan claro que “se haya rebajado la importancia del PAI” y ha instado, en caso de conocer casos de incumplimiento, a denunciarlo. De la Peña ha aclarado que, a pesar de ser una “herramienta válida” hoy por hoy “no se ha invertido en que se conozca”. Por parte del grupo Nacionalistas Vascos, Jon Sánchez, ha manifestado que “en los últimos tiempos con la aprobación de los últimos pliegos hay una apuesta clara desde la Diputación Foral de mejora”, y ha explicado que éste se trata de un tema “sensible” que necesita “un análisis con pausa y con capacidad de respetarnos”.

SITUACIÓN FORESTAL EL BIZKAIA

Previamente han comparecido ante los grupos Julen Villasante y Keko Salgado con el fin de presentar “Kolare guztietako basoak”, un proyecto que tiene como principal objetivo la recuperación de bosque autóctono en Bizkaia. Ambos portavoces han incidido en que actualmente el bosque autóctono solo supone el 25% de la superficie arbolada del territorio, y que además ésta se encuentra fragmentada y es joven. Una superficie en la que destaca la presencia del pino y especialmente del eucalipto; esta especie en localidades como Armintza o Lemoiz ya ocupa alrededor del 66% de la superficie.

“Lo que planteo es un futuro nuevo y un futuro mejor”, ha avanzado Villasante. Esta medida, dirigida especialmente a los terrenos de titularidad pública, tiene como principal objetivo la biodiversidad logrando que el que el bosque autóctono pase de ocupar el 25% al 42%. Tal y como ha explicado una de las principales ventajas del bosque autóctono tiene que ver con los incendios: “Para un fuego es más fácil extenderse por una plantación que por un bosque autóctono, ya que al tener más humedad dentro, solo se queman los bordes”.